

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

LAN ETA JUSTIZIA SAILA

Arabako Lurralde Ordezkaritza

Bodegas de los Herederos del Marqués de Riscal, SL enpresaren hitzarmen kolektiboa

Ebazpena, Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Arabako lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da 2020 Bodegas de los Herederos del Marqués de Riscal, SL enpresarentzako hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea. Hitzarmenaren kodea: 01003552012010.

AURREKARIAK

2020ko uztailaren 31n aurkeztu da, Ordezkaritza honetan, negoziazio batzordeko enpresari ordezkariak eta ordezkari sozialek, 2020ko uztailaren 20an sinatu zuten lan hitzarmen kolektiboaren testua.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikulua, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea (2015eko urriaren 24ko BOE) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritza honi dagokio, apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuko 15.1.h artikulua –Lan eta Justiziako Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2017ko apirilaren 21eko EHAA)- dionarekin bat etorritik eta urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15eko EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12ko BOE) – hitzarmen kolektiboaren erregistroari buruzkoak- lotuta.

Bigarrena. Sinatutako hitzarmen kolektiboak betetzen ditu lehen aipatutako Langileen Estatutu Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

Lehenengoa. Euskadiko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboaren Erregistroko Arabako Lurralde Bulegoan erregistratu eta gordailatzeko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadin xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abuztuaren 31

Arabako lurralde ordezkaria
CARMEN DE CELIS CUEVAS

Eltziego, 2020ko uztailaren 20a.

Hauek bildu dira: alde batetik, "Bodegas de los Herederos del Marqués de Riscal, SL" enpresaren legezko ordezkaria. Enpresa horren egoitza soziala Eltziegoko Torrea kaleko 1. zenbakian dago.

Eta, bestetik, enpresa-batzordearen ordezkariak, plantillako langileen legezko ordezkari gisa.

Bi alderdiek lege-gaitasun nahikoa dute elkarrekin ituntzeko eta elkar behartzeko, eta elkarri onartu diote gaitasun hori, eta aurka egingo ez dutela agintzen dute; beraz, libreki eta euren kabuz,

Hau adierazten dute

Urte honetan enpresako langileek bete beharko dituzten gizarte- eta soldata-baldintzak finkatzeko, enpresaren hitzarmen kolektibo hau adostu dute. Hauek dira hitzarmenaren klausulak:

1. artikulua. Aplikazio-eremua

Hitzarmen honek "Bodegas de los Herederos del Marqués de Riscal, SM" enpresak Eltziegoren duen lantegiko langileen lan-baldintzak eta baldintza ekonomikoak arautzen ditu, normalean mahastietan lan egiten duten langileenak izan ezik.

2. artikulua. Iraupena eta indarraldia

Hitzarmen honek urtebeteko iraupena izango du; ondorio ekonomikoetan bakarrik, 2020ko urtarrilaren 1era arteko atzeraeragina izango du, eta 2020ko abenduaren 31n amaituko da.

Hitzarmena iraungi aurreko hiru hileetan alderdietako batek salatzen ez badu –Lan Agintaritzari jakinarazita–, urterik urte luzatuko da, besterik gabe.

3. artikulua. Xurgatzea eta konpentsatzea

Hitzarmen honetan jasotako baldintzek osotasun organikoa eta zatiezina eratzen dute, eta aplikazio praktikoari begira, guzti-guztiak hartuko dira kontuan urteko zenbaketan. Hitzarmen honetan ezarritako kontzeptu ekonomikoek xurgatuko eta konpentsatuko dituzte hitzarmen honen indarraldian ezartzen diren kontzeptuak –horien izena, izaera edo jatorria edozein dela ere–, izan beste eremu batzuetako hitzarmenen ondoriozkoak edo arbitraje-erabakien ondoriozkoak, izan oro har aplikatzekoak diren legezko xedapenen ondoriozkoak, eta horiek hitzarmen honi eragingo diote soil-soilik osotasunean eta urteko zenbaketan hartuta hitzarmen honetan itundutakoak gainditzen dituztenean.

Bestela, kontzeptu ekonomikoak ezertan aldatu gabe xurgatuko eta konpentsatuko dira, eta hitzarmen honek bere horretan jarraituko du indarrean.

4. artikulua. Osotasunarekiko lotura

Hitzarmen honen klausulek osotasun organiko eta zatiezina eratzen dute, eta ondorioz, ezin dira zatika aplikatu.

5. artikulua. Lanaldia

Hitzarmen honetan aurreikusitako baldintzak 1.760 orduko lanaldiari dagozkio, eta 2020. urterako dira.

Lanaldia bi alderdiek adostuko duten lan-egutegian banatuko da.

Dena den, larunbateko lanaldia nahitaezkoa izango da mahatsa biltzeko sasoian.

Berariaz erabaki da lanaldi irregularra ezartzeko aukera, irizpide hauen arabera:

a) Lanegunak ez dira 7 ordutik beherakoak izango, ezta 9 ordutik gorakoak ere.

b) Lanaldien artean 12 orduko atsedena utzi beharko da, gutxienez.

Enpresak txandak eta erreleboak antolatu edo alda ditzake, baina langileen ordezkariekin adostu beharko ditu alde zuzenak.

Irailaren 10a, Mahastien Ama Birjinaren eguna, ordainduriko eta erreuperatu beharko ez den jaieguna izango da. Bi alderdiak ados jarrita, Lan Egutegian azalduko den beste egun batera aldatu ahal izango da.

6. artikulua. Oporraldia

Hitzarmen honen eraginpeko langileek 30 egun naturaleko oporraldia izango dute urtean. Opor horiek zenbatekoen arabera ordainduko dira, hain zuzen, erantsitako soldata-tauletan kategoriatu bakoitzerako jarritako arabera, eta pertsona bakoitzari dagokion antzinatasun-plusa gehituta, hala dagokionean.

7. artikulua. Soldata-igoera

Erantsitako soldata-tauletan azaltzen dira hitzarmen hau aplikatuko zaien langileen baldintza ekonomikoak.

8. artikulua. Arau osagarriak

Hitzarmen honetan aurreikusi ez den oro, Langileen Estatutuan, Ardogintzarako, Alkohol-gintza, Likoregintza eta Sagardogintzaren laudoan eta indarrean dauden legezko Xedapenen arabera ebatziko da, bai eta Lan Ordenantzaren ordez agindutako Laudoan ezarritakoaren arabera ere. Laudo hori 1996ko maiatzaren 28ko BOEn argitaratu zen.

9. artikulua. Lansariko eta kalte-ordaineko kontzeptuak

Hitzarmen honetan ordainsari eta kalte-ordain hauek hartu dira kontuan:

1. Ordainsarien kontzeptuak:

- Oinarrizko soldata.
- Osagarriak:
 - a) Nekagarritasun-plusa.
 - b) Gaueko lanaren plusa.
 - c) Laneratze-plusa.
 - d) Aparteko orduak.
 - e) Udako eta Gabonetako aparteko haborokinak.
 - f) Mahastietako Amaren eguneko ordainsari berezia.

2. Kalte-ordainen kontzeptuak:

- Soldataz kanpoko plusa.

10. artikulua. Oinarrizko soldata

Hitzarmen honen aplikazio-eremuko langileen oinarrizko soldata erantsitako soldata-tauletan zehazten da, mailen arabera.

11. artikulua. Nekagarritasun-plusa

Plus horren zenbatekoa erantsitako soldata-tauletan zehazten da kategoriatu guztietarako. Zenbateko horiek orduko zenbateko gordinak dira, eta finakoak dira hitzarmen honen indarraldi osorako, edozein izanda ere hitzarmeneko oinarrizko soldatari dagokionez kategoriatu bakoitzerako finkatutako benetako zenbatekoa.

12. artikulua. Gaueko lanaren plusa

22:00etatik 06:00etara bitartean lan egiten duten langileei hitzarmen honi erantsitako soldata-tauletan kategoria bakoitzerako esleitutako hobaria ordainduko zaie.

Artikulu honetan jasotako hobariak direla-eta, hitzartutako zenbatekoak gordinak eta finakoak dira hitzarmen hau indarrean dagoen urte osorako, edozein izanda ere kategoria bakoitzeko oinarrizko soldataren arabera ezarritako zenbatekoa. Kontzeptu honetatik salbuetsita daude, lanaren izaera dela eta, aldi horretan joateko kontratatzen diren langileak.

13. artikulua. Laneratze-plusa

“Laneratze plusa” izeneko osagarria lan egindako egun bakoitzeko ordainduko da. Zenbatekoak erantsitako soldata-tauletan agertzen dira, maila edo kategoria bakoitzerako.

14. artikulua. Aparteko orduak

Indarrean diren xedapenetan ezarrita dago zenbat aparteko ordu sar daitezkeen.

Aparteko orduaren prezioa erantsitako soldata-tauletan zehaztuta dago, kategoria guztientzat.

Zenbateko horiek orduko zenbateko gordinak dira, eta finakoak dira hitzarmen honen indarraldi osorako, kalkulatzeko beste edozein modu gorabehera.

15. artikulua. Aparteko haborokinak

Erantsitako soldata-tauletan zehazten dira uztailleko eta Gabonetako aparteko haborokinak; zehazki, maila edo kategoria bakoitzerako azaltzen diren zenbatekoak, hogeita hamar eguni dagokien osagarri pertsonala gehituta.

Dagokion hilaren lehen hamabostaldian ordainduko dira ordainsari horiek.

Haborokin horiek ezin dira astean edo hilean hainbanatu, eta aurreikusitako egunetan ordaindu beharko dira.

16. artikulua. Mahastietako Ama Birjinaren haborokina

Mahastien Ama Birjinaren ordainsariaren haborokin bereziaren kontzeptu gisa, erantsitako soldata-tauletan berariaz zehazten den ordainsaria ordainduko die enpresak, urtero, langile guztiei, kategoria dela-eta bereizketarik egin gabe, irailaren lehenengo hamabostaldian.

Lan egindako denboraren arabera hainbanatuta ordainduko zaie haborokina urtea hasita lanean hasten diren edo lana uzten duten langileei. Debekatuta dago hilean edo astean hainbanatzea.

17. artikulua. Soldataz kanpoko plusa

Langileen Estatutuari buruzko Legearen testuategina onartu zuen martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege-dekretuaren 26. artikuluko 2. zenbakian jasotako kontzeptuei erantzuten die soldataz kanpoko plusak.

Soldataz kanpoko plusak kalte-ordainen kontzeptu hauek hartzen ditu:

Tresnen edo erreminten higadura, joan-etorrien gastuak eta lan-arroparen garbiketa. Kontzeptu horietako bat izatea nahikoa izango da ordainketa sorrarazteko.

Soldataz kanpoko plusa lan egindako egun bakoitzeko sorraraziko da, eta zenbateko bera izango da erantsitako soldata-tauletan azaltzen diren maila guztientzat.

18. artikulua. Lizentziak eta baimenak

Langileak hitzarmen honetan ezarritako baimen ordaindua jasotzeko eskubidea izango du, ahal izanez gero lehenago ohartarazi ondoren; betiere, honako arrazoi hauengatik:

a) Ezkontzeagatik, 17 egun natural.

b) Egutegiko 3 egun, ezkontidearen, semearen edo alabaren, ezkontide bataren eta bestearen aitaren edo amaren heriotzagatik edo gaixotasun larriagatik, behar bezala egiaztatuta.

c) Egutegiko 2 egun, biloben, aitona-amonen, eta ezkontide bataren eta bestearen anai-arreben heriotzagatik, edo gaixotasun larriagatik, behar bezala egiaztatuta.

d) Egutegiko egun bat, seme-alaben edo anai-arreben ezkontzagatik.

e) Egun natural bat ezkontideen osaba-izeben edo iloben heriotzagatik.

f) Ohiko etxebizitza aldatzeagatik: egun bat.

g) Norberaren aukerako egun bat, astebete aurretik jakinarazita.

Artikulu honen b) eta c) idatzi-zatien kasuan, arestian adierazitako epeak beste bi egunez luza daitezke gehienez, langileak joan-etorriak egin behar baditu.

g) atala berrikusi ahal izango da egungo urteko lanaldia aldatzen bada (1.760 ordu). Murriztuz gero, haren baliokidetasunagatik konpentsatuko litzateke.

Artikulu honetan adierazitako lizentziak eta baimenak izatezko bikoteei ere aitortuko zaizkie, baldin eta lizentzia hartu baino urtebete lehenago gutxienez elkarrekin bizi direla egiaztatzen badute, izatezko bikoteen erregistro ofizialak emandako ziurtagiriaren edo egiaztagiaren bitartez.

19. artikulua. Laneko arropak

Enpresak langile guztiei, oro har, lanerako arropa-sorta bat emango die urtero. Oinetakoak eta eskularruak ere emango dizkie, lanagatik hala behar duten langileei.

Lanaren ondorioz lanerako arropa hondatu egiten bada, enpresak beste arropa-sorta bat eman beharko du.

Langileek zaindu, garbitu eta txukundu beharko dituzte laneko arropak; izan ere, lanaldian erabili beharko dituzte, eta ez lanetik kanpo.

20. artikulua. Istripu-aseguruaren poliza

Enpresak, aseguru-poliza egokiaren bidez, langileen lan-istripuen ondoriozko heriotzaren eta baliaezintasun erabateko eta oso iraunkorraren arriskuak estaliko ditu, eta istripua jasan duenari edo, heriotza gertatuz gero, haren kausadunei, honako kalte-ordain hauek bermatuko dizkie:

– 40.000 euro, lan-istripuaren ondorioz ekoizlearen hiltzen bada.

– 45.000 euro, kontingentzia horren ondorioz guztizko baliaezintasun iraunkorra edo gora-goko gradu batekoa sortzen bada.

Poliza formalizatu ondoren, enpresak kontratazio berriak jakinarazi beharko dizkio aseguru-konpainiari, eta gehienez hiru hilabetera arteko kontratua duten langileak salbuetsiko dira. Horiek polizatik kanpo geratuko dira ondorio guztietarako, salbu eta euren kontratuak luzatzen badira eta arestian adierazi den epea baino denbora luzeagorako ematen badituzte zerbitzuak.

21. artikulua. Laneko arriskuen prebentzioa

Laneko segurtasun- eta osasun-batzordeak Laneko arriskuen prebentzioko 1995eko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen edukia garatzen jarraituko du.

Hitzarmen honen eraginpean dauden langileak azterketa mediko bat izango dute urtean, enpresaren kontura eta lanorduetan.

22. artikulua. Lanpostu hutsak

Plantillako lanpostu hutsak betetzeko, baldintza berdinak badaude, enpresak lehentasuna emango die enpresako langileen ondorengoei, aldeztu aurretik gaitasun-probak eginda, eta horren berri emango dio enpresa batzordeari.

Aurreko paragrafotik kanpo geratzen dira beste langileekiko aginpidea edo boterea edukitzea eskatzen duten lanpostuak. Langile horiek Enpresak izendatuko ditu askatasunez.

Gaixotasunak edo lan-istripuak eragindako ezintasuna dela-eta, fisikoki urritutako langileei laneraten laguntzeko, enpresa ahaleginduko da langile horiei lehentasuna ematen, haien urritasun fisikoarekin bateragarriak diren lanpostuak bete ditzaten.

23. artikulua. Aldi baterako kontratuak

Merkatuaren gorabeherak direla-eta, lanak pilatzen direlako edo eskaera gehiegi daudelako egiten diren behin-behineko kontratazioetan, Arabako Ardoaren Industriadako eta Merkataritzarako Hitzarmen Kolektiboaren 24. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

24. artikulua. Laneko istripuen edo gaixotasunen prestazio osagarria

Lan-istripuak edo lanetik kanpoko istripuak edo gaixotasun arruntak eragindako lanerako ezintasun iragankorraren kasuetan, enpresak prestazio osagarria bermatuko dio langileari, hitzarmen honen 10. artikuluan zehazten den langilearen kategoriari dagokion soldata erreala-
ren ehuneko 100 arte, soldataz kanpoko plusa gehituta, baja hartu eta hamaseigarren egunean hasi, eta lauogeita hamar eguneko mugara arte; ezarritako muga edo gehienezko epe horretatik aurrera, enpresak ez du prestazio osagarri hori ordaindu beharrik izango.

Gaixotasun arrunt, lan-istripu edo lanetik kanpoko istripuaren ondorioz emandako diagnostikoa "larria" edo "oso larria" bada, eta arrazoi horregatik langileak ospitaleratu beharra baldin badauka, prestazio osagarri hori baja-egunaren hurrengo egunetik hasita ordainduko zaio langileari, aipatu hogeita hamar eguneko mugara arte.

Aldi horretan, langileak jasoko dituen soldata likidoek, prestazio osagarri horren ondorioz, ezingo dute gainditu inola ere muga hau: ohiko lanaldian langile berari, enpresan ohiko lan-jardueran balego, legezkiokkeen soldata likidoak.

25. artikulua. Mediku-bisitak

Langileak urtean ordaindutako sei ordu izateko eskubidea izango du, Gizarte Segurantzako familia-medikura (anbulatoriora) joateko.

Espezialista batengana jotzeko, langile guztiek ordaindutako baimena izateko eskubidea izango dute. Horretarako, familia-medikuaren bolantea aurkeztu beharko dute alde zuzenetik.

26. artikulua. Berme sindikalak

Enpresa batzordeak, langileen ordezkari den aldetik, enpresaburuarekin negoziatzeko ahalmena du, ordezkatzeko dituen langileen interesak defendatzeko. Indarrean dagoen legeriak une bakoitzean adierazitako eginkizun eta bermeez gain, aginpide hauek izango dituzte:

A) Enpresan hutsik dauden lanpostuen berri izatea, erantzukizunekoak edo konfiantzakoak deiturikoak direnean izan ezik.

B) Lan-sistema berriak ezartzeari edo aldatzeari dagokionez, langileei eragiten dieten neurrien berri izatea, baita finkatzen diren lanpostuen balorazio-eskalen edo tarifen berri izatea ere.

C) Zerbitzu-premiak direla-eta edo enpresari komeni zaiolako, ordutegian aldaketarik eginez gero, haien berri izatea 15 egun lehenago.

D) Enpresa batzordearen eskumenak Langileen Estatutuaren 64. eta 65. artikuluetan azaltzen dira.

27. artikulua. Batzorde paritarioa

Batzorde paritario bat ezarriko da hitzarmen hau betetzearekin lotutako interpretazio-, adiskidetze- eta zaintza-lanetarako.

Langileen ordezkari batek eta enpresaren beste batek osatuko dute Batzorde paritarioa.

Batzordeak enpresaren lokaletan izango du egoitza, eta han egingo ditu bilerak.

Hauek dira batzorde paritarioaren eginkizun espezifikoak:

a) Hitzarmena interpretatzea; gai horri buruz sortu litezkeen gatazka kolektiboak izan aurretik erabaki beharko du. Batzordeak gehienez ere hamabost eguneko epea izango du erabakitzeke, desadostasuna aurkezten denetik hasita.

b) Hitzartutakoa modu kolektiboan betetzen dela zaintzea; proposatzen zaizkion eragin orokorreko gai eta eztabaidei buruz erabaki ahal izango du.

Batzorde paritarioak unean-unean indarrean diren judizioz kanpoko prozedurak baliatu ditzake lan-gatazkek konpontzeko.

Batzorde paritarioak lan-agintaritzaren eta funtzio jurisdikzionalaren eskumenak eragotzi edo oztopatu gabe gauzatuko ditu eginkizunak.

28. artikulua. Txanda kontratua

Enpresako langile guztiek har dezakete txanda-kontratua, baldin eta legez ezarritako baldintzak betetzen badituzte eta borondatez hala eskatzen badute, erretiro partziala hartu baino 90 egun lehenago gutxienez. Horrela, enpresak aukera izango du haien ordeztartuko diren langileak hautatzeko, eta administrazioari dagozkion laguntzak eskatzeko.

Langileek aukera izango dute urteko aldietan banatzeko erretiro osorako geratzen zaien lan-denbora, denbora-tarte jarraitu batez, hitzarmen honetako 5. artikuluan finkatutako lanaldiaren barruan. Horrez gain, langile horiek soldata geroratuta jasoko dute, erretiratu partzial diren artean.

Txanda-kontraturako aurreikusitako lanaldi-murrizketa handienarekin igaroko dira langileak erretiro partzialera, lanaldi partzialeko kontratu batekin eta, ondorioz, erretiro partzialeko presazioaren ehuneko handienarekin; Gizarte Segurantzaren kontura izango da guztia.

Bodegas de los Herederos del Marqués de Riscal, SL enpresaren soldata-hitzarmena. 2020

KATEGORIAK	OINARRIZKO SOLDATA	LANERATZE O.	APARTEKO O.	OPORRAK	UZTAILEKO O.	EGUBERRIA	MAHASTIAK	APART. ORD.
1. - Langile tituludunak								
Goi mailako titulua	58,49	10,02	6,59	2.139,96	2.038,05	2.038,05	2.174,02	22,25
Erdi mailako titulua	56,54	9,94	6,59	2.049,07	1.987,56	1.987,56	2.174,02	21,83
Behe mailako titulua	48,70	9,39	6,59	1.896,44	1.793,89	1.793,89	2.174,02	20,83
2. - Teknikari tituludunak								
Upategietako arduraduna	51,87	10,15	6,59	1.916,00	1.798,81	1.798,81	2.174,02	21,54
Laborategiko arduraduna	47,12	9,37	6,59	1.695,70	1.605,81	1.605,81	2.174,02	20,70
Laborategiko laguntzailea	40,00	6,55	6,59	1.462,30	1.376,08	1.376,08	2.174,02	18,10
Laborategiko auxiliarra	40,00	6,55	6,59	1.462,30	1.376,08	1.376,08	2.174,02	18,10
3. - Administrariak								
Goi-mailako burua	60,92	10,19	6,59	2.192,98	2.149,73	2.149,73	2.174,02	22,89
Lehen mailako burua	51,87	9,64	6,59	1.933,09	1.833,30	1.833,30	2.174,02	21,54
Bigarren mailako burua	46,08	9,37	6,59	1.695,71	1.605,81	1.605,81	2.174,02	20,69
Lehen mailako ofiziala	43,99	8,15	6,59	1.648,77	1.527,04	1.527,04	2.174,02	19,84
Bigarren mailako ofiziala	41,77	7,38	6,59	1.522,41	1.422,01	1.422,01	2.174,02	18,72
Laguntzailea	38,15	5,56	6,59	1.359,38	1.273,24	1.273,24	2.174,02	17,23
16-17 urteko izangaia	30,20	4,12	6,59	1.098,53	1.019,47	1.019,47	2.174,02	
4. - Saltzaileak								
Goi-mailako burua	60,92	10,19	6,59	2.192,98	2.026,30	2.026,30	2.174,02	22,89
Salmenta-burua	48,84	9,19	6,59	1.897,12	1.783,44	1.783,44	2.174,02	
Salmenta-ikuskaria	39,45	8,45	6,59	1.648,77	1.527,04	1.527,04	2.174,02	
Hiri-artekaria	41,51	6,76	6,59	1.492,49	1.400,13	1.400,13	2.174,02	
Saltzaile bidaiaria	41,51	6,76	6,59	1.492,49	1.400,13	1.400,13	2.174,02	
Salmenta-sustatzaila	39,34	6,76	6,59	1.491,89	1.400,13	1.400,13	2.174,02	
5. - Mendekoak								
Etxezaina	41,42	6,36	6,59	1.462,30	1.364,97	1.364,97	2.174,02	19,36
1. mailako mendekoa	39,20	6,00	6,59	1.413,43	1.037,36	1.037,36	2.174,02	17,66
2. mailako mendekoa	38,14	5,57	6,59	1.362,67	1.254,42	1.254,42	2.174,02	17,23
Laguntzailea	37,16	5,11	6,59	1.305,34	1.204,86	1.204,86	2.174,02	16,48
16-17 urteko mandataria	30,20	4,12	6,59	1.098,53	1.004,40	1.004,40	2.174,02	
Garbitzaileak	27,16	5,11	6,59	1.305,34	1.204,86	1.204,86	2.174,02	16,44
6. - Profesionalak								
Upategietako arduraduna	48,75	3,74	6,59	1.804,26	1.693,26	1.693,26	2.174,02	21,78
Upategiko langileburua	45,69	8,56	6,59	1.673,29	1.553,25	1.553,25	2.174,02	20,22
Ataleko arduraduna	42,96	7,63	6,59	1.584,12	1.478,93	1.478,93	2.174,02	19,65
1. mailako ofiziala	41,77	7,35	6,59	1.522,41	1.422,01	1.422,01	2.174,02	18,72
2. mailako ofiziala	39,70	6,10	6,59	1.437,84	1.356,38	1.356,38	2.174,02	18,10
3. mailako ofiziala	39,20	6,00	6,59	1.413,43	1.323,61	1.323,61	2.174,02	17,66
7.- Laguntzaileak								
1. mailako ofiziala	41,74	7,38	6,59	1.522,41	1.422,01	1.422,01	2.174,02	18,72
2. mailako ofiziala	39,70	6,13	6,59	1.437,81	1.356,39	1.356,39	2.174,02	18,10
Espezialista	38,14	5,57	6,59	1.359,37	1.273,24	1.273,24	2.174,02	17,23
Morroi espezializatua	37,22	5,11	6,59	1.399,97	1.210,84	1.210,84	2.174,02	16,81
Peoia	37,22	5,11	6,59	1.399,97	1.210,84	1.210,84	2.174,02	16,44
16-17 urteko ikastuna	27,96	3,88	6,59	1.076,06	967,01	967,01	2.174,02	
1. mailako gidari-banatzaila	41,77	7,35	6,59	1.522,41	1.422,01	1.422,01	2.174,02	18,72
2. mailako gidari-banatzaila	39,70	6,10	6,59	1.437,84	1.356,38	1.356,38	2.174,02	18,67
Nekagarritasun-plusa								
	0,87							
Gaueko lanaren plusa								
	2,45							